



ONDARROAKO UDALA

## 2016/795 DEKRETUA

**Exp.zkia.: O/1157**

**Gaia: Atzazpi (Ondarroa) Zaborteziaren Ingurugiro jarraipena *\_Lurzoruaren kalitatearen deklarazioaren izapidetzea bukatzeko lanak\_*. Garapen jasagarria 2015 *\_022-SUE-2015\_*, lurzoru kutsatuak delako dirulaguntzaren onarpena.**

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko aginduz garapen jasagarria sustatzen duten ekintzak gauzatzen dituzten Udalei (...) diru laguntzak ematea arautu zen.

Ingurumena eta Lurralde Politikako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plagintza sailean Alkatearen idatzi baten bidez 2015ko irailaren 15ean egindako lehen dirulaguntzaren eskaerari zuzenketak eginda behin betiko dirulaguntza eskaera 2015eko urriaren 22an egin zen "**Zaborteziaren Ingurugiro jarraipena *\_Lurzoruaren kalitatearen deklarazioaren izapidetzea bukatzeko lanak\_*."**

Ondarroako udaletxean 2015eko abenduaren 30eko Ingurumen eta Lurralde Politika Departamentuko Ingurumen Sailburuordearen ebazpena jaso da, horren arabera Ondarroako Udalari 14.250,00 €ko dirulaguntza dagokio *\_Diruz lagundu daitekeen gastua 15.000,00€\_*.

Aurreko guztia kontutan hartuta hauxe erabaki dut:

Lehena.- Eusko Jaurlaritzako 14.250,00 €ko dirulaguntza onartzea.

Bigarrena.- Ondarroako Udaleko Web orri ofizialean dirulaguntza jaso denaren publizitatea egitea.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzari eta Udal kontuhartzaileari ematea.

Ondarroa, 2016ko abuztuaren 4an

Alkatea  
Zunbeltz Bedialauneta

